BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

5433

AGINDUA, 2012ko azaroaren 7koa, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Basque Culinary Center Fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Ikusi da, eta aztertu, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko egindako eskabidearen espedientea. Hona hemen

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2012ko abuztuaren 13an, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Sailean sartu zen Basque Culinary Center Fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskabidea. Eskabide-idazkiarekin batera, kopia eskuetsi bat aurkeztu zen, Antonio Román de la Cuesta Galdiz Arrasateko notarioaren aurrean 2012ko uztailaren 13an egiletsitako eskritura publikoari zegokiona (protokolo-zenbakia: 501).

Bigarrena.– Patronatuko idazkariak, 2012ko urriaren 17ko ziurtagiriaren bidez, eta lehendakariaren oniritziaz, eskritura publiko horren zenbait alderdi argitu zituen.

Hirugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Zerbitzu Teknikoek aztertu dute espedientea, eta ondoren, erabaki-proposamena egin dute. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio estatutuak aldatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala agintzen da honako xedapen hauetan: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan; Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuan; eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuan –irailaren 2ko 13/2012 Dekretuaren bidez aldatu zen azken dekretu hori.

Bigarrena.– Espediente honi funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta, bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 44. artikuluan eskatutakoak; aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat dator aldaketa.

Hirugarrena.– Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2006ko abenduaren 6an barnemerkatuko zerbitzuei buruz eman zuten 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko, hainbat lege aldatu zituen apirilaren 23ko 7/2012 Legeak. Lege horren 106. artikulua betez, aldatu egin da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 12/1994 Legea, zehazki, 31. artikuluaren 1. paragrafoa: «Aldatzea». Hori horrela, fundazioak babeslaritza-eginkizunean dituen helburuen

aldaketa berariaz onartzeko, espedienteari Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen zuzendariaren Ebazpena erantsi zaio.

Ikusirik aipatutako arauak eta aplikatzekoak diren gainerako arauak, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Donostiako (Gipuzkoa) Basque Culinary Center Fundazioaren estatutuetako 3. artikuluan (fundazioaren xedea) eta 5. artikuluan (helbidea) egin diren aldaketak inskribatzeko agintzea, agindu honen data dutela, 2012ko uztailaren 13an Arrasateko notario Antonio Román De La Cuesta Galdiz jaunaren aurrean egiletsitako eskritura publikoaren zehaztapenekin bat etorriz (protokolo-zenbakia: 501).

Estatutuetako 3. artikuluan egin den aldaketaren ondorioz, hauek izango dira, aurrerantzean, fundazioaren xedeak:

«Fundazioaren helburua honako hau da: gastronomia-zientzien alor desberdinetan, prestakuntza eta ikerketa, berrikuntza, eta ezagueraren eta teknologiaren transferentzia. Horretarako, lankidetzako ikerketa-prozesuak sortuko dira Unibertsitate, Zentro Teknologiko, enpresa eta erakunde publikoen artean, hain zuzen ere, ezaguera sortu eta transferitzeko sare bat garatzeko eta, gastronomia garatuz, turismoa sustatzeko eta bisitariak erakartzeko.

Horren guztiaren helburu nagusiak honako hauek dira:

Euskal sukaldaritzak goi-sukaldaritzaren eta berrikuntzaren gune gisa jarrai dezan bermatzea, eta goi-mailako ezaguera eta profesional kualifikatuen prestakuntza sortzea. Horretarako, prestakuntza-eskaintza zabala ezarriko da: unibertsitate-titulu ofiziala, graduondokoak eta etengabeko prestakuntza.

Garapen iraunkorra sortzea, kultura gastronomikoan, elikagai-hezkuntzan eta elikadura-joeretan.

Ikerketa eta ezagueren transferentzia sustatzea, goi-sukaldaritzako profesionalengan eta gastronomiarekin lotura zuzena edo zeharkakoa duten enpresa- eta ezaguera-sektoreetan (elikaduraren teknologiak, nutrizioa, elikadura funtzionala, editoriala, ekipamendua, nekazaritzako elikagaiak...), eta aldi berean, euren arteko sinergiak sustatzea.

Estatutuen 5. artikuluan egindako aldaketaren ondorioz, fundazioaren helbide berria hau da: Juan Avelino Barriola pasealekua 101, 20.009 Donostia.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 7a.

Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.